

Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxaren Giza eta Gizarte Zientzien Saria 2000: Miguel Artola

MIGUEL ARTOLARI SARIA EMATEKO EKITALDIA

Miguel Artola Gallego historialari donostiarrak Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxa saria jaso zuen 2000. urteko azaroaren 22an, Donostiako Miramar jauregian. Sari honen bitartez kulturaren, artearen, humanitateen eta gizarte zientzien arloetan, Euskal Herriko *curriculum* onenaren jabeari saritzen ohi zaio, bere emaitzen bikaintasunaren balorea sustatzeko, alegia. Miguel Artolaren kasuan bere obra historiografiko esanguratsua izan da kontuan hartu izan dena, egungo historiaren eremu akademiko eta ikertzailean arras ezaguna dena. Ekitaldia Ernest Lluch i Martín berriki gertatutako heriotzagatik isiluneko minutu batekin hasi zen, sari emanaldia irakasle honen *in memoriam* batean bihurtuz.

Mondragon Unibertsitateko Errektoreordea Guillermo Irazokik 1923an jaiotako historialari donostiar honen ekarpena funtsezkotzat zuen, mundu garaikidea ulertu nahi badugu behintzat. Irazoki jaunaren hitzetan, goraiпатzekoa da sarituak irakaskuntzan eginiko lan luzea, ikertzaileen belaunaldi osoak hezteaz gain, historiaren begirada akademiko, zorrotz eta zientifikoari atea ireki bait dizkio. Gizarteari eginiko ekarpen handia, argitaratu dituen lan ugarietan ere isladatzen da: dozena bat liburu baino gehiago, hainbat talde-lanen zuzendaritzan emandako laguntza eta aldizkari eta publikazio anitzetan artikuluko-kopuru amaigabea. Urte hauetan guztietan historialari euskaldun honek egindako lanak eta lortutako ospeak, presentzia unibertsala duela eta gizarte osoari itzelezko balioa duen ekarpena egin diola erakusten dute. Bere Euskal Herriaganako ekarpena da hain zuzen ere, bere zentzu unibertsala eta bere irekiera nazioarteko ogasun kulturalera, lokaletik unibertsalera hedatzen duena. Lehen hizlari honek bukatu zuen Artola jaunaren gizarte euskaldunaren ikuspegi integraziaile eta irekia goraiпатuz, lokala den hori ezagutzera ematen duen dimentsio bat emanez, ezagupen unibertsalarekin armonian eta kolaborazio estuan lana egiteko.

José Luis Goñi Sein, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Idazkari Nagusiak jarraitu zuen Miguel Artolaren obraren garrantzia aipatzen, Espainiako Estatuaren XIX. mendeko historia ezagutu ahal izateko batik bat. Antzeko azterketa egin zuen Pabe eta Aturiko herrialdeetako Unibertsitatetik zetorren Jean Michel Uhaldeborde Lehen Lehendakariordeak, Artolaren jakingura intelektuala eta lan egiteko ahalmen itzela azpimarratuz. Manuel Casadok, Nafarroako Unibertsitateko Errektoreordeak, bere ibilbide akademikoaren une gogoangarrienak deskribatu zituen, obra eta sariez aparte, garrantzi handiko dizipuluak dituela gogoratuz: Ángel García-Sanz, Pablo Fernández Albadalejo, Pedro Ruiz Torres, Fernando García de Cortázar eta Javier Donézar.



Momento de la entrega del Diploma acreditativo del premio. Juan Mari Otaegi, Miguel Artola, Juan José Goiriena de Gandarias.



Aspecto de la sala.

Historialari eta historiazale. Ez da posible arlo honetan lan egitea historia ez bada maitatzen, Euskal Herriko Unibertsitateko Ikasleen Errektoreorde Lander Sarasolak gogora ekarri zuen moduan. Horrek esan nahi du gure iragana ikuspegi ireki batetik ikusi eta ikertu behar dela, eta horixe da, Sarasola jaunaren ustez, Artolak eman digun emaitzarik garrantzitsuena: jarrera, jokaera eta berrikuntza. Artolak hainbeste bisitatu duen Deustuko Unibertsitatetik, bere Errektore José María Abrego de Lacyk Artolaren deskribapena egin zuen donostiar argitsu, maisuen maisu, errespetagarri, miretsi eta pertsona maitatuaren ezaugarriak azpimarratuz.

Juan José Goirienak, Eusko Ikaskuntzaren Lehendakariak, erakunde honetako liburuetan Miguel Artolaren izena lehen aldiz agertzen ez zela aipatu zuen. *Beste batzuetan ere bere maitasuna erakutsi digu, Euskal Herriko historiari buruzko goi mailako ikasgaiak eskaini dizkigularik. Eusko Ikaskuntzaren Kongresuetan eta baita ohiko historia-jardunaldi batzuetan ere Artola irakaslearen zientziaz gozatu ahal izan dugu, bere ekarpen guztiek bikaintasunaren maila lortu dutelarik.* Gure aldizkariari dagokionez, 1983ko RIEVen *El Estado y las Provincias Vascas 1700-1876* artikulua argitaratu zuen.

Ondoren Miguel Artolak saria jaso zuen, bere lagun Ernest Lluch en hilketagatik egun alaia izan behar zuena, goibela bihurtua zela gogoratuz. Bere lanaren inguruko hausnarketak egin eta gero –modu zabalago batean jarraian jasotako artikuluan azal dutakoak-, eskerrak eman zituen. Ekitaldia Euskadiko Kutxako Lehendakaria Juan Mari Otegik, Bianako Printzea Instituzioko zuzendaria Juan Ramón Corpasek eta Eusko Jauriaritzaren Kultura Sailburua María Carmen Garmendia Lasak itxi zuten, sarituaren egundoko lana goratuz.

Roldán Jimeno Aranguren